

BERRIGARA

zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1995, azaroak 10



**Eskolaz
kanpoko
iharduerak**

Autoberezi



FIAT

Alfa Romeo



ANTIGUA AUZOA, ANTZUOLA (GIPUZKOA)

☎ 76 62 10 / 76 62 75



GUIPUZCOANA

Paketean garraio eta banaketa

BERGARA

San Juan Erreka. Elgetara bidea.
Tfnoa: (943) 76 36 42 / Faxe: (943) 76 54 25

Z E B E R R I D A ?

MIREIA GABILONDO

Tanttaka antzerki taldekoa

- Zuen azken muntaiian zuzendari lanak betetzen dituzu...

- Bai, Raymond Coussé idazlearen "Enfantillages" lana egokitu dugu. Bi bertsio egin dira, bata gaztekeraz ("Chiquilladas") eta bestea euskaraz ("Umekeriak") eta bietarako zuzendari eta aktore desberdinak izango dira. Euskarazkoan aktorea Jose Ramon Sorroiz da (monologo bat da) eta neuk zuzentzen dut. Lehen aldia da lan bat zuzentzen dudala. Jose Ramon eta biok aspalditik ezagutzen dugu elkar, konfiantza zegoen geure artean eta ausartu egin gara abentura honetan.

- Zeri buruzkoa da?

- Aktore heldu batek mutiko baten papera egi-



ten du eta bere bizitzan sexuak, erlijioak edota irakaskuntzak duten eragina aztertzen da. Aktoreak paper ezberdinak lantzen ditu obran zehar eta jendea umearekin nahiko identifikaturik sentitzen da. Getxon oso harrera ona izan genuen eta jendeak primeran pasatuko duela uste dut.

"Estreinatu berri dugun 'Umekeriak' lanean zuzendari lanak egiten ausartu naiz"

I T U R R I O N E T I K

Udala Bergarako Kultur Ekintzaren zorraren kargu egin da

Bergarako Udalak bere gain hartuko du Kultur Ekintza Elkarteak zuen 775.000 pezetako zorra, Udalak eta Kultur Ekintzak hartutako akordioaren arabera. Horren truke, Kultur Ekintzak zuen pintura bilduma (lehiaketa ezberdinetakoa) eta artxiboa Udalarari dohaintzeko konpromezua hartu zuen Kultur Ekintzak. Udalak dagoeneko lehen aipatutako zorra ordaindu du eta, akordioari jarraituz, datozen egunetan Kultur Ekintzaren pintura bilduma eta artxiboaren jabetza hartuko du Udalak. Jarraian, jasotako ondasun horiek udal inbentarioan erregistratuko dira.

E S A N D U T E

[Nafarroako Bardeei buruz]

"Egun, Estatuaren menpe dago lurralde hau; lehen Nafarroako erregearen menpe eta Nafarroa konkistatu ondoren, Gaztelako erregearen menpe egona omen da.

Hauek Bardeez baliatzeko eskubidea eman zien hainbat herriri eta Erroñkari eta Salazar haranetakoei. Hala ere eskubide honen jatorria ez ei da guztiz zertat berdina: gerran egindako merituak saritzea, erregeari emandako laguntza ekonomikoa ordaintzea, biztanlegoa erakartzea eta lehengo ohiturek jarraitzea dira hauek.

(...) Han dago militarren maniobragunea eta hainbat tiro eta bonba botatzen omen dituzte maniobretan. Honi guztiari erasten badiogu turismora doazen mendiko kotxe eta motoristen ibilerak, hemen ditugu Bardeetako higadura edo erosioa bizkortzen duten elementuak"

RFINA OLASAGASTI
Kultur Jestorea
ARRSATE PRESS

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
Telefonoa eta Faxe: 76 03 97

Argitaratzailea:
BERRIGARA Elkartea.
Berrigara, 13 Bergara.
Telefonoa eta Faxe: 76 08 19

Zuzendaria:
Alex Azkarate

Erredakzioa:
Eduardo Mendibil
Eduardo Elkoroberezibar
Alex Larrañaga

Publizitatea:
Alex Azkarate

Argipidetzak:
Sorka Elortza

Besten zuzenketak:
Eduardo Plazaola
Alex Laskurain
Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:
Sorka Elortza
Angel Elkoroberezibar
Alex Labaien

Idazleak:
Eduardo Rodriguez
Sorka Ortega & Jon Alvarez
Alex Ugalde

Argitaratzailea:
BERRIGARA

Argipidetzak:
Sorka Elortza

Argipidetzak:
Sorka Elortza

Argipidetzak:
Sorka Elortza

Argipidetzak:
Sorka Elortza



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Legebiltzaren Kultur sailaren laguntza jaso du

**APOLO 13**

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30,
22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30 (Ikuslearen
eguna).**MIS AVENTURAS CON
NANUK EL ESQUIMAL**

Igandea: 11.30.

**SALTO AL VACIO**

Osteguna: 20.00.

Zinea

▼▼ **Tom Hanks** aktore ezagunak (*Forrest Gump*) protagonizatutako azken filma. **Ron Howard** zuzendariaren eskutik, 1970 urte inguruan NASAK egindako misio espazial baten gorabeherak kontatzen zaizkigu.

Astronautek arazoak izan zituzten eta NASAKo langileek 3 astronautak (**Hanks, Bill Paxton** eta **Kevin Bacon**) berreskuratzeko plan bat inprobisatu behar izan zuten...

▼▼ Iazko Gijon eta Kanarietako zine jaialdian hainbat sari lortu zituen filme honek, tartean filme onenarena bietan ere. 1922an *Flaberty* ipamerikarrak (**Charles Dance**) ospe handia lortu zuen mundu osoan zehar *Nanuk* eskimalaren (**Adamic Inukpuk**) laguntzaz eginiko dokumentalei esker.

▼▼ *Pasajes* filmea errodatzen hasi berri den **Daniel Calparsoro** zuzendari donostiarraren lehendabiziko filmea zineklubean. *Alex* (**Najwa Nimry**) hiriaren kanpoaldean bizi den pertsonalite handiko neska bat dugu. Bere inguruko arazo guztiei aurre egin beharko die...

Deiak

▼ **Eusko Alkartasunak** alderdikide eta jarraitzaileen aldeko meza iragarri du Monja Zaharretan eguerdiko 12etan datorren zapatuan, hilak 18. Meza ostean bazkaria izango da Alkartetxean, Carlos Garaikoetxea bertan izango delarik. Bazkarirako txartelak Alkartetxean.

▼ **1945**ean jaiotakoen (66ko kintoak) afaria azaroaren 18an Txuringon. Izen-ematea 76 10 49 (Peñalba), 76 27 83 (Phildar) edota 76 25 70 (Gube) telefonoetan.

▼ **1970**an jaiotako eta Aranzadi Ikastolan elkarrekin ibilitakoen bazkaria abenduaren 2an Antxonin. Izen-ematea Kortazarren azaroaren 26a baino lehen.

▼ **Agirrebeña** tabernaren inaugurazioa egingo da igandean 7etatik 9etara.

Ogia

▼ **Igandea 5:** Mizpildi.

FARMAZIAK

▼ **Ostirala 10:** Camacho.

▼ **Larunbata 11:** Puy.

▼ **Igandea 12:** Puy.

▼ **Astelehena 13:** Guallar.

▼ **Asteartea 14:** Estella.

▼ **Asteazkena 15:** Mozos.

▼ **Osteguna 16:** Camacho/Inzar.

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA

☎ 79 91 82 ARRASATE

ETXAGI

JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

Kizkur

**ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

Argazki erakusketa

Julio Garrido eibartarraren argazkiak Nahikari tabernan

Julio Garrido eibartarraren argazki erakusketa ikus daiteke egunotan Nahikari tabernan. Garridok 37 urte ditu eta bere kabuz hasi zen argazkilaritza jorratzen fanzine eta bestelako aldizkari alternatiboetan. Nahikariko erakusketan 10 argazki eta beste sei fotomontaje jarri ditu ikusgai. Bere hitzetan, "argazkiak ateratzeko orduan bi aukera nituen: batetik anguloak bilatzea eta bestetik ikusten nuenagatik fidatzea. Bigarren hau aukeratu nuen, batez ere Pirinioak aukera asko ematen dituelako".



Julio Garridok Nafarroa eta Iparraldeko paisaiak eta fotomontajeak ekarri ditu Nahikari tabernara.

Argazki gehienak Nafarroan eta Iparraldean aterakoak dira: "Donibane Garazi", "Lunbier", "Isaba", "Zugarramurdi", "Sarako jaiak", "Muga"... etab. "Superfluoa, beharrezkoak ez diren gauzak alde batera utzi eta autentikoa isladatzen saiatu naiz. Paisaiak berak esaten dit non kokatu eta nere aurrean ikusten du-

dana azaldu nahi dut" aipatu digu Garridok.

Fotomontajeak, berriz, kreatibitateko aukera gehiago ematen dute Garridoren iritziz. "Puzzle moduko bat da fotomontajea. Argazki bat hartu eta horrekin jokatzeko hasi, proba ezberdinak eginez. Lan asko ematen dute eta batzutan ez du-

zu puzzlea osatzen. Askoz nekezagoa da, koloreekin eta anguloekin ikutuak eman eta horri zentzua ematea arte prozesu luzea izaten baita. Nahiko konplexua izaten da baina asko gustatzen zait honelako montajeak egitea. Askotan koloretan egindako fotokopiak erabiltzeko obitura daukat eta benetan emaitza erakargarriak lortzen dira, polita iruditzen zait".

Garridok 10 bat urte daramatza argazkilaritzan eta bere asmoa profesional izatera heltzea da.

"Pausoz pauso joan behar da eta argi dago mugitu beharra duzula. Horrelako erakusketak egitea ondo datorkit lanak saldu abal izateko". Garridoren ustez "zuribeltzean ateratako argazkiak kotizatzen hasi dira, ia desagertzeaz bait daude".

Bere gustoko argazkilarien artean honako hauek aipatu dizkigu: Ansel Adams, Irwin Penn eta Man Ray. Argazkizaleek hilaren amaierara arte izango dute Julio Garridoren lanak ikusteko aukera.

**10 argazki eta beste sei
fotomontaje ikusi
daitezke**

SURPE

Taberna

Erdiko Plaza. Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

LARREA

TABERNA

Kale Barren, 17
ANTZUOLA

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK

LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta, 26 BERGARA

Bergarako UNED

Agurne Barruso Lazkano HBko zinegotziak, 210 zenbakiko Berrigarren idatzitakoari jarraituz zera adierazi nahi nioke, bergararre zuzentzen denean egjarekin egiteko eta esplikatuko naiz:

- Bergarako UNED ekonomikoki gestio-natzen duen erakundea patronatu bat da eta bertako kideak Gipuzkoako Foru Aldundia, Bergarako Udala, Kutxa eta Euskadiko Lan-kide Aurrezkia dira 1995 urtea bukatu arte, beraz zuk adierazitakoa ez zaio egjari egokitzen.

- Ez dago inongo erabaki politikorik, Gipuzku Buru Batzarra ez da Patronatuko kidea beraz kontestutik kanpo gelditzen da; Patronatuak hartutako erabakiak entitate bakoitzeko ordezkarien gain doaz eskusiboki, beraz Barruso A. egjaren ezagutzaz azaldu zure mezuak eta ez nahasi bergararrak.

- Alkate honek ez du alde batera uzten bergararren interesak defendatzeko eduki lezakeen aukerarik, eta ez dut ulertzen zeintzuk diren nire interes pertsonalak eta nire alderdiarenak gai honi buruz; berriz diot ez nahasi bergararrak eta esan egia; une honetan Gipuzko mailan Bergarako Udala lehenetarikoa dugu, lehena ez bada, euskaldun-tzearen prozesuan eta lan hau, gehiena, alkatetza dudanetik burutua izan da.

- Patronatuko kide bezala nire baietza eman nuen UNEDek behar duen berregituraketari buruz txosten bat prestatzeko, baina era berean egia da UNEDeko Enpresa Batzorkideek berregituraketa bat beharrezkoa dela aitortu didatela.

- Erabaki honen inguruan bi arrazoi ematen ditudala adierazten dit Barruso A.k, lehena EGA ikastaroak beste euskaltegietan eskeintzen direla, hau ez dut nik esaten baik eta teknikoek. Bigarrena "Udalaren aportazioa (10 M) eta hau garestia dela" ez dut sekula honelako adierazpenik egin alderantziz, eta Udalbatz Osoak 1995eko martxoaren 27an egindako Ohizko Bilkuran onartutakoari igortzen naiz; ez asmatu nik egin ez dudana deklaraziorik.

- Ez dakit merkea edo garestia naizen gordin/urteko 6.911.716 pzt. jasotzean, hori herritarrek esango dute; dena den zure inguruan ikertu eta gonbaratu.

Barruso A. ezin daiteke esan arintasun horrekin kultura eta euskera ez zaizkidalda inporta, egindakoa hor dago, lehen aipatu dut euskeraren egoera zein den Bergarako udal-txean eta laister plangintza berri bat martxan jarriko da euskeraren erabilera bultzatzeko asmoz. Kulturari dagokion neurrian, orain dela denbora gutxi legealdi bat bukatu dugu, eta legealdi horren deskargu gisa txosten bat banatu genien bergararrei, irakurtzera gonbidatzen zaitut. Bukatzeko adierazi alkate naizen bitartean ez diodala uko egingo ez kulturari ez euskerari ez eta bergararren interesak defenditzeari.

VICTORIANO GALLASTEGI
BERGARAKO ALKATEA

Konponbideen zai

Bergarako Udaleko Enpresa Komiteak udal gobernuaren jarrera salatu nahi du langilegoaren arazoekiko azaldu duen interes falta nabarmenagatik, muzin egin baitie hainbat gai (komenioko artikulua batzuek ez bete-tzea, ordu extrak, kontratazioak burutzeko oinarrien onarpena, laneko segurantzza eta higiene batzordea, etab.) aztertzeko komiteak egindako bilera eskaera guztiei.

Halaber azpimarratu nahi dugu hainbat aldiz ukatu digutela langileen arazoak aztertzeko pertsonal batzordea osatzeko eskaera. Gobernuko taldeak ez baitie ezta erantzunik ere eman eginiko bilera eskaerei eta, noski, are eta gutxiago gurekin bildu.

Bukatzeko, azaldu behar dugu legealdi honetarako izendatu duten sasibitartekaria aurreko legealdikoa dela eta garai hartan behin eta berriro arazo bera salatu genuela. Zinegotzi honek garbi erakutsi du langileen arazoekiko duen sentsibilitate falta eta azpijokoaz baliatuz arazoak luzatu eta konponbi-deak oztopatu ditu behin baino gehiagotan.

BERGARAKO UDALEKO
ENPRESA KOMITEA

Tiira biraka



Deba Garaiko euskalgintza UNEDeko EKDren alde

◆ Gotzon Mendibil kotxe istripuan hil

Gotzon Mendibil 29 urteko bergararra kotxe istripuan hil zen larunbatean, egurrak zeramatzan kamioi bat Zubillagan irauli eta Gotzonek gidatzen zuen kotxearen gainera jauzi ondoren. Gotzonekin batera zihoazen lau lagunek zauriak jasan zituzten baina nahiko egoera onean dira guztiak. Erreskateak ordu t'erdi inguru iraun zuen, kotxea kamioiko kabinaren azpian geratu baitzen. Gotzon Mendibilen aldeko hileta elizkizunak igandean San Pedron egin ziren eliza jendez gainezka zegoela.

◆ Hitzaldia

Ostegunean Jesus Larrañagak "Bergara eta inguruko lanpostu industrialen bilakaera eta etorkizuna" hitzaldia emango du Miguel Altuna Institutuan 20.00etan.

HILDAKOAK

Gotzon Mendibil Kortazar

Azaroak 4, 29 urte

Andres Osinalde Mujika

Azaroak 8, 72 urte

JAIOTAKOAK

Endika Gandiaga Conget

Azaroak 2

Ainhoa Lazkano Agirrezabal

Azaroak 5

Bergarako UNEDeko Euskal Kultura Departamentuaren aldeko agiria plazaratu zuten joan zen asteartean Deba Garaiko hainbat euskara elkarte eta erakundetako ordezkari edo langileek.

Agiriak hiru puntu ditu eta zera adierazten da lehen puntuan: *"Aspaldiko hemeretzi urteotan lan eskergea egin du Bergarako UNEDeko EKDK euskararen eta euskal kulturaren alde. Orain ere lan handia egiten ari da"*. Bigarren puntuan, berriz, beste hau esaten da: *"Are geiago, Bergarako UNEDeko EKDK gure bailaran eta Euskal Herri osoan euskararen alde sortu diren ekimen askoren mintegia izanda eta aurrerantzean ere ekimen berrien baztegia izatea espero da"*. Eta hirugarren eta azken puntuan, beste hau: *"Bergarako UNEDeko EKDKren lana obiko euskaltegien lanaren osagarria da"*. Agiria, EKDK lanean jarraitu dezala eskatuz bukatzen da *"bera ixtea kaltegarria bailizate Deba Garaiko eta Euskal Herri osoko euskalgintzarentzat"*.

Agiri hau Deba Garaiko euskara elkarte, herri komunikabide, euskalte-



Euskalgintza munduan sinadurak batu eta Patronatuarekin bilduko dira.

gi, udaletako euskara zerbitzu eta Eskoriatzako Irakasle Eskolako ordezkari edo langileek sinatu dute (28 entitatetakoak) eta UNEDeko Patronatua osatzen duten erakunde- ei bidali zitzaion orain dela aste batzuk. Astearteko prentsaurrekoan, EKDK Bergarako UNEDI nortasun berezia ematen diola adierazi zen, *"ez delako estatuko beste edozein UNED bezalakoa"*.

Manifestazioa zapatuan

Prentsaurrekoa amaitu ostean, arestian sortutako UNEDen aldeko plataformak batzarra egin zuen. Bertan, besteak beste, UNEDen aldeko manifes-

tuaren berri eman zen eta honen aldeko firma bilketa kalean egitea erabaki. Bestalde, larunbat honetan eguerdiko 12etan San Martin plazatik irten-go den manifestaziorako deia zabaldu zen. Agiriak bi puntu ditu, hain zuzen ere UNEDeko Patronatuari egindako bi eskaera: *"Itxi berri den EKDK berehala zabaltzea eta bere obiko ikastaroak normaltasunez jarraitzea"* eskatzen da lehen puntuan. Eta bigarrenean, Patronatuaren eta langileen artean negoziaketak zabaltzea, *"ikastetxe honek sorreratik izan duen espirituari jarraituz eta komenigarriak ikusten diren aldaketak eginez UNED bizi eta indartsu bat lortzeko"*.

NEKAZAL ZENTRUA

OTXOA, E. M.

B A N A T Z A I L E A K



MUSAKOLA, 2

Industria poligonoa Arrasate

Tfnoa: 79 17 79 - 79 86 70
Faxa: 79 15 48

◆ Mendi irteera

Pol-Pol Mendizale Taldeak azaroaren 19rako 14 urtetik gorakoentzat mendi irteera iragarri du. Izen-ematea eta informazio gehiago Pol-Poleko bulegoetan.

◆ Odol emalearen eguna Osintxun

Bergarako Odol Emaleen Elkarteak antolatuta, odol emaleen eguna ospatuko da Osintxun datorren igandean, azaroak 19, bertako odol emaleen omenez. Meza ostean bazkari herrikoia egingo da Txuringon. Bertan, 25 odol donazio egin dituztenei diploma bana banatuko zaie. Izen-ematea Txuringo jatetxean edota Bergarako Odol Emaleen Elkartearen (76 22 36 telefonoan) egin daiteke.

◆ Eski eta mendi materialaren azoka

Azaroaren 20tik 25era bitartean egingo den eski eta materialaren azokan parte hartu nahi duten guztiek azaroaren 13tik 18ra bitartean eraman beharko dute materiala Pol-Polera, astebarruan 7etatik 20.30etara eta larunbatetan 5etatik 8etara. Azoka honetan saldu nahi diren eski eta mendiko material ezberdinak jasoko dira.

◆ Ongizate Zerbitzuaren ikastaroa

Ongizate Zerbitzuak antolatuta, gutxitu fisiko zein psikikoen familiarrentzako ikastaroa izango da azaroaren 20, 23 eta 27an. Izen-ematea Anbulategian, 76 24 40 telefonoan (Ana).



Berrigararen Erretratu zaharren lehiaketara aurkeztutako lanak beren jabeei itzuliko zaie.

Kazetaritza eta Erretratu zaharren lehiaketak plazara

BERRIGARAK bere V. urteurrena ospatzeko antolatutako kazetaritza eta erretratu zaharren lehiaketako lanak entregatzeko epea abenduaren 11n arratsaldeko 5etan itxiko da. Kazetaritza lehiaketan bi sail bereiztuko dira: erreportaia eta elkarrizketa. Bergararekin zerikusia duten gaiak landu edota herriko pertsonaiak elkarrizketatu beharko dira eta adinaren arabera 2 kategoria bereiztuko dira. 16 urtera artekoentzat (2 orrialde gehienez) sari hauek izango dira: elkarrizketa sailean 10.000 eta 7.000 pzta.ko sariak lehen bientzat eta erreportaian, berriz, 15.000 eta 10.000 pzta.koak.

16 urtetik gorakoek (3 orrialde gehienez) beren lanak makinaz entregatu beharko dituzte. Elkarrizketa sailean 12.000 eta 8.000 pzta.ko sariak emango zaizkie lehen biei eta erreportaian, 20.000 eta 15.000

pzta.koak. Lanak ezizen batekin sinatuko dira eta egilearen datuak beste sobre itxi batean jarri beharko dira, kanpoaldean ezizena jarritz.

Erretratu zaharren lehiaketan ez da adin mugarik izango. Epaimahaiak argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta argazkiari buruzko komentarioa (15 lerro) hartuko ditu kontutan. Partaide bakoitzak, gehienez, lau argazki aurkeztu ahal izango ditu eta argazki paperaren neurria aukeran gelditzen da. Argazkiak kartulina batean entregatu beharko dira eta testu-orrialdearekin batera sobre batean sartu. Argazkien atzealdean egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa jarri beharko dira. Irabazleak 20.000 pzta. eskuratuko ditu, bigarrenak 15.000, hirugarrenak 10.000 pzta. eta, horrez gain, 5.000 pzta.ko bost akzesit banatuko dira.

**LARRAÑAGA
eta ZUBIA
Banatzaileak**

Errioxako ardoa, olioak,
esnea, lejiak...

Martokua, 32 ☎ 76 45 94

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

**BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura**

Zubieta, 46 BERGARA

☎ 76 12 31

Justo Garate bekaren lehen lanari buruzko liburua argitaratu da

Rosa Ramos: "Euskara berreskuratzeko elkarlana behar da"

Ostiralean Justo Garate bekaren lehen edizioa aurkeztu zen Udaletxean. "Nafarroako egoera demolingustikoa eta funtzionala" aztertu du Rosa Ramos Alfarok.

- Zein da zure lanaren konklusioa?

- Oso zaila da bat aukeratzea. Datuekin ezin da esan euskararen egoera egonkorragoa denik. Badira faktore, prozesu eta indar asko eta guztiak gurutzatzen dira. Egoera konplexua da. Ez bakarrik datu hotzak, datuen azterketak zer dagoen ikusi behar da, konturatzeko fenomeno gehiago daukela datuen atzean eta zonalde guztietan irabazten ari garena beste leku batetik ere galtzen dela. Eta horri aurre egiteko neurriak jarri behar dira.

- Nafarroan, lurraldez lurralde, euskarari buruzko radiografia bat egingo zenuke?

- Historikoki erdaldunak izan direnetan, hiriburuan eta hiri handietan berreskuratzen ari da bakarrik, batipat irakaskuntzari esker. Baina hortik aparte, beste herri batzutan (Tutera esate baterako) ez dira lorpen handiegiak ikusten.

Zonalde euskaldunetan, ordea, mugan dauden herriek jasotzen dute galerarik bortitzena. Eta euskara galtzeko arriskua ere badago. Berreskura-

pena ematen ari den aldi berean bertako euskara ia galdutzat ematen dute, euskalkiak galtzeko arriskuan daude. Zonalde benetan euskaldunetan (Leizta, Goizueta...) normalizaziorako bideak jorratu dituzte; herri euskaldunak dira baina zenbaitean (Baztan...) galera ikusten da eta euskarak, irabazi baino, hiztunak galtzen ditu. Eta ez da ikusten hizkuntza plangintza koherente bat horri aurre egiteko. Paralelismo bat ematen da egoera demolingustikoa eta funtzionalaren artean.

Laburbiltzeko, hiriburuak oso garrantzi handia dauka bai zonalde erdaldunetan eta zonalde euskaldunetan gertatzen denarekin. Zonalde euskaldunetan hiriburua behar dute eta goiko zonal-

deko biztanle horiei erantzuteko gauza izan behar da hiriburua.

- Zein da erronka?

- Arlo berezi bat aipatu baino nik esango nuke beharrezkoa dela lan egiteko beste era bat, bai giza mugimenduen aldetik eta administrazioaren aldetik ere. Edozein esparru dela ere, elkarlana bultzatu eta konturatzeko gauzak benetan serio egin behar direla eta plangintzak burutu behar direla eta ez dela nahikoa programa batzuk egitea. Zonalde euskaldunetan, adibidez, euskara hutsez bizitzeko ahaleginak egin behar dira eta erakundeek langundu egin behar dute. Indarrak galtzen ari gara eta gure erronka dauden indarrak ondo aprobetxatu eta edozein arlotan lan egitea da.

Aurkezpen ataria

Ostiraleko aurkezpenetan, besteak beste, Juan Ramon Elorz Nafarroako Gobernuako Euskararen Normalizazio eta Sustapen Zerbitzuko zuzendaria, Jose Antonio Zabala (Justo Garate ordezkatzuz) eta Victoriano Gallastegi alkatea izan ziren. Aurkezpena hasi bezain laister HBko 4 zinegotzik UNED ixtearen kontrako pankarta bat erakutsi zuten Pleno Aretoan. Alkateak pankarta erretiratzeko eskatu zien baina Juan Mari Garitanok zera erantzun zion: *"hemen euskararen sari batzuk ematen zaudete eta bestaldetik UNED ixten"*. Alkateak horri buruzko Plenorik ez dela egin eta ez zela momentu egokiena hori eztabaidatzeko esan zion. HBko ordezkariak erakutsitako pankartan kartel bat zegoen UNEDek duen kostoa (10 milioi) eta alkatearen soldata (7 milioi) konparatuz. Alkateak hori gezurra zela gaineratu zuten HBko zinegotzietan. Handik gutxira HBko ordezkariak erretiratu eta aurkezpen ekitaldiak aurrera egin zuten. Larunbat goizean HBk beste enkartelada bat egin zuten Kutxak Plazan duen bulegoaren aurrean. Bertan "Kutxak UNED hil nahi du" irakur zitekeen.



Nafarroako egoera demolingustikoari buruzko liburuaren aurkezpena.

FANDANGO ETA ARIN ARIN IKASTAROA

IRAKASLEA: Edu Muruamendiaraz

Hasiera maila / Sakontze maila

NOIZ:

**Azaroaren 28tik
apirilaren 2ra arte**

PREZIOA:

**5.000 pzta. bazkideak
5.500 pzta. ez direnak**

ORDUTEGIA:

**Asteartetan
19.30-21.00**



Izen-ematea: Azaroaren 22a baino lehen JARDUNen (76 08 19)

BERGARAKO UDAL KIROL ZERBITZUAK

*zure kontura kirola egin ahal izateko
aukera eskaintzen dizu...*

alokairuak • alokairuak • alokairuak • alokairuak • alokairuak

ESKUPILOTA-PALA

- Zabalotegiko pilotalekuan 600 pzta. orduko (dutxa barne)
 - Lanegunetan gaueko 9ak arte
 - Astebukaeretan, larunbata egun osoa eta igandean goizez

TENISA

- Egunero (astebukaeretan izan ezik) kiroldegiko kanpoko pistan, 400 pzta. orduko

Informazioa eta izen emateak Udal Kiról Zerbitzuan ☎ 77 91 35

Legedia

Kaleko topikoak

- Zuzenbide kontuetan ere topikoak izan go dira...

- Futbol, kaleko obra eta zuzenbide gaitan guztiok gara aditu, edo hori da sarritan entzuten ditugun komentarioetatik ateratzen dena. Horrela, halako arbitroren jokabidea denok komentatzen eta epaitzen dugun bezala, zuzenbideari buruzkoak, famili zuzenbideari buruzkoak bereziki, maiz erabiltzen ditugu ahotan, jende askok baitu bere koinatuaren auzoko baten lehengusin bat horrelako kasu batetik pasatuko. Eta hau dela eta, pelikuletan ikusitakoarekin eta egunkarietan irakurritakoarekin batera, bada biltza kalean horrelako topiko batzuk jendea abokatuarengana doanean erabat nahastuta dutenak.

- Zeintzuk dira kalean entzuten diren topikoak?

- Famili arazoei lotuta batez ere badaude hor zehar entzuten diren topiko oker batzuk. Adibidez, etxetik alde egiten duten ezkontideak "eskubide guztiak galtzen di-

tu", hau da ez duela haurren zaintzearekin gertzerik eta ondasunen banaketan ere gutxiago dago kiola, batez ere ezkontide hori beste pertsona batekin joan bada. Kode Zibilak baina ez du ezkontide baten erruduntasuna kontutan hartzen banaketaren edo dibortzioaren ondorengo neurriak ezartzeko, eta ezkontide "errudunik" ez dagoenez kasu hauetan



ELENA LAKA

(Abokatua)

ez zaio aipatutakoak bezalako "zigorrik" ezartzen.

Azkenaldian, komunikabideen eraginez batez ere, asko zabaldu den beste topiko bat, alegia, banaketaren ondoren haurren zaintza guraso bien esku egotea (hau da,

"custodia compartida" delakoa). Gaur egun osterako gehiago da nahia benetako errealitatea baino, eta praktikan guraso biak ados dauden kasuetan bakarrik, eta hala ere ez guztietan, aplikatzen da.

- Gai hauei lotuta entzundako komentario benetan bitxiren bat?

- Zeharo harrিতa utzi ninduen bat, sekula horrelakorik entzuteke nengoelako eta legeetan inolako oinarririk ez duela: adoptatutako seme-alabei herentzian gainerako seme-alaben partearen doblea tokatzen zaiela. Ez du inolako fundamenturik noski, adoptatutako seme edo alaba bestek bezalako baita herentzia konturako.

- Eta zabalduen dagoen topikoetako bat?

- Askok esaten dutena diru zor bat dutenean: eraman nazatela gartzelara baina nik ez dut zor hori ordainduko. Gaur egun dirua zor izateagatik ez dute inor gartzelara eramaten, bide zibila erabiltzen da eta ondasunak enbargatzen dira, baina ez da horregatik jendea gartzelaratzen. Salbuespen bat badago honetan: seme-alabeentzako pensioa zor duen ezkontide banatuarentzat edo dibortziatuarentzat gartzelazigorra ezartzen du Kode Penalak.

"Eraman nazatela gartzelara baina nik ez dut zor hori ordainduko" sarri entzuten da



Zuzenbide kontuetan topiko ugari izaten dira.

MEMESA

P
phanton

IRIMO

ARRASATE 79 42 22 ARETXABAETA

SFK



Etengabeko iharduera

Eskola orduetatik kanpoko ihardueretan buru-belarri

Gaur egun gutxi dira eskola orduetatik kanpo beste iharduerarik egiten ez duten haurrak. Goizean jeiki eta oheratu bitartean inglesa, musika, partikularrak, kirola... era guztietako ihardueretan hartzen dute parte. Zein lagako luketen galdetuz gero zaila egiten zaie aukeratzea eta dena egin nahi dutela adierazten dute.

OHoko haurrek (gu hauekara mugatu gara) ez dute aspertzerik. Eskolatik irtetzen direnerako haiaikatxo zeregin dute aukeran. Oro har hartuta lau sailetan sailka daitezke egun Bergaran dauden eskaintzak. Alde batetik kirola egiteko aukera dago, bestetik ikasketak hobetu edo areagotzeko bi-

dea ere eskeintzen da (akademikak, partikularrak...), eskolako ikaske-
tez gain beste era bateko ezagutzak jaso nahi izanez gero musika, pintura, hizkuntzak, katekesia, dantza... daude eta, azkenik, astialdiko ihardueraz arduratzen diren taldeak ere badaude.

Haurren artean denetarik dago, batzuek beste



Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF-SERVICE-A

Barrenkale, 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

MUJIKA

Jantzidenda

Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91

batzuek baino gehiago, baina gehienak dira eskola orduetatik kanpo beste zerbait egiten dutenak. Ane Miren (12 urte) esaterako eskubaloian eta dantzaz dabil.

Izaskun 6. mailan dabil, 11 urte ditu. Aurten, orain arteko gain, lan berria izango du, Jardunek antolatutako soinu ikastaroan hasi baita. *"Niretzat soinua da instrumenturik politena eta horregatik aukeratu dut. Larunbatetan ordubeteko saioa izaten dut eta gero etxean entsaiatu behar izaten dut. Soinura etorri aurretik dantzara joaten naiz, dantza ere ordubeteko izaten da. 80 ume gabiltza dantzaz. Igan detan Pol-polen irteerarik badago, mendira ere joaten naiz".* Soinua eta dantzaz gain Izaskunek inglesa ikasten ere badihardu, *"6 urterekin hasi nintzen. Astelehenetan izan ezik egunero joaten naiz ordubeteko saiora. Astelehenetan katekesia izaten dut".*

Lorea Izaskunekin batera dabil dantzaz. *"8etan jeiki eta gaueko 9ak aldean etxeratzen naiz. Astelehen eta asteazkenetan bizkuntza musikale-ra joaten naiz; astearte eta ostegunetan igerilekura; astelehen, asteazken eta ostegunetan ingelesera; ostegunetan soinua ikastera; larunbatetan dantzara eta Aske astialdiko taldera eta*

igandeetan Pol-polen irteerak daudenean mendira". 12 urteko neskatila 7. mailan dabil eta etxeratzen denean etxeko lanak egiteko izaten dituela dio. *"Azkar bizi naiz, denera azkar-azkar joan behar izaten dut. Batzuetan izaten dut zerbait lagatzeko gogoia baina ez dakit zer, pena ematen dit... gainera badakit egiten dudana egin egin behar dudala, nire zeregina delako. Asteburuetan izaten dut jolasteko astia; gebien gustatzen zaidana txakurrarekin ibiltzea eta lagunekin irtetzea da".*

Ordutegi arazoak

Hurrek, zer utziko luketen galdetu diegunean, *"ezer ez"* erantzun digute,

argi dute egiten ari diren iharduera guztietan jarraitu nahi dutela. Honek ordea iharduerak eskeintzen dituztenei ordutegi arazoa ekartzen die, askotan iharduera desberdinak ordu berean izaten baitira.

Lide Oregi Santa Marinako katekistak adierazi digunez aurten orduak koordinatzeko bilera bat egin da. *"Orain arte ez da egin baina askotan haurrek ordu berean gauza bat baino gehiago izaten zuten eta aukeratu beharra izan beharrean, bietara joateko aukera izan dezaten musika eskolarekin eta eskola kirolekoarekin bilera egin da".*

Bilera egin arren, ordutegi arazo guztiak ez direla konpondu adierazi


digu Alberto Laskurainek. *"Oso zaila da ordutegi arazoak konpontzea, guk oraindik talde bat ez dakigu zein ordutan jarri. Instrumentua banaka ikasten dute eta ordutegia zehaztea erraza da, irakaslea eta ikaslearen esku dago, baina taldean daudenean (bizkuntza musikala edo taldeko entsaioren bat dutenean) nola adin desberdinetako umeak nabastuta egoten diren eta ia denek beste ihardueraren bat duten, ez dakigu nola moldatu".*

Ludoteka

Ane Laskurain eta Ainhoa Arbelaitz arduratzen dira Xipizaro ludotekaz. 4-13 urte bitarteko 90 bat haur joaten dira, gehie-



Jardunek antolatzen duen soinu eta pandero ikastaroan 30 bat haur ari dira.



LIZAR
ALTZARIAK

Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka, 4 behea ☎ 76 18 93

- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak

nak 5., 6. eta 7. mailakoak direlarik. *"Jolasteko beste aukera bat eskaintzen dugu eta haurrek ikasteko aukera dute: futbolina, billarra, mabai jokoen bidez, hemen dauden sukalde, eraikuntza eta irakurtzeko txokoak erabiliz... Hemen nabi dute-na egiten dute, eurek aukeratzeko dute zertan ibili. Helburua euskara bultzatzea, ikastetxe desberdinetako haurrak elkar ezagutzea eta elkarrekin jolastea da. Gainera argitu beharra dugu ludoteka haur guztientzat dagoela zabalik, Aranzadi ikastolan egon arren, ez du Aranzadi ikastolarekin zerikusirik".*

Errefortzu taldeak

Euskeraren erabilera bultzatzeko hitzarmena-

ren barruan udalak euskeraz hitzegiteko eta hobetzeko premia duten haurrei laguntzeko errefortzu plana eskaintzen die. Plan honetan 85 bat ume dabilta 18 begiraleekin. Begiraleak San Martingo 3. eta 4. mailara, eta Mariaren Lagundiko 2. eta 3. mailara joaten dira. Eli Payros udaleko hitzarmen teknikariak adierazi digunez *"ludoteka edo udaleku bat bezalakoa da eta helburua haurrek euskeraz jardutea da. Orain arteko esperientzia oso positiboa izan da, haurrek euskeraz hitzegiteko zailtasuna izan arren, euskaraz jarduteko joera bartu dutelako".*

Eskoletako talde haue-taz gain euskararen erabilera katekesian ere zain-tzen da, katekistak ardu-ratzen dira honetaz eta lu-

"Haurrek astean zehar zeregin ugari programatuta dute eta asteburuetan dute jakiten zer egin" Nuria Barrena

dotekan 5. mailakoekin ere egiten da jarraipena.

Musika Eskola

LOGSEn sartuta dauden ikasleak, hau da plan berrian sartuta dauden 14 urtetik beherako ikasleak 375en bat dira, aurren sartutakoak 71. Alberto Lascurainek, musika eskolako zuzendariak, dioenez gehienek ikasten dutena pianoa da. *"Instrumentu bat ikasiz gero bandan edo orkestran jotzeko aukera dute, pianoarekin, ordea, ez da halakorik gertatzen eta hala ere instrumentuetan errege da".*

Plan berria dela eta musika ikasketetan zenbait aldaketa izan da. *"Bergaran musika hobby bezala ikas daiteke, ez dago titulurik ateratzerik, horretarako kontserbatorioan ikasi beharra dago. 3. maila kontserbatorioan egin nabi izanez gero oso gazte, 12-13 urterekin aukeratu behar du haurrak obiko ikasketak egin edo instrumentu bat aukeratu eta musikara dedikatu nabi duen, eta oso gaztea da oraindik".*

Katekesia eta Aske astialdi taldea

1. mailan hasi eta 2. jaunartzea egin bitartean (6. maila) joaten dira haurrak katekesisera. Kristau heziketa erakusten zaie haurrek astean izaten duten ordubetea. Zaharragoi, 7. eta 8. mailako haurrei, parrokiak astialdiko taldean elkartu eta larunbatetan 2 ordu jolasen emateko aukera ere eskaintzen die. Nuria Barrerok esan digunez, 50 bat lagun elkartzen dira eta jokoak, eskulanak, irteerak, konbibentziak, e.a. egiten dituzte. *"Haurrek gauza gehiegi dute; astean zehar gaueko 9ak arte zeregin ugari izaten"*



Era guztietako jolasak egiten dituzte herriko ludotekan.

YAZKI
UME GAZTE
Neska eta mutil
 Irizar, 3 Ibargarai, 8
 ☎ 76 16 14 ☎ 76 54 73


GAZTELU
BURDINAKI DENDA
 Mintegi, 1 Tfnoak: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

gizaten dute, dena
gizaten denean ez
Aske taldekoa

dute, asteburua iristen da
eta ez dakite zer egin".

Eskola kirola

Kirola egiteko aukera ugari dago: gimnasia erritmikoa, karatea, pilota, txirrindularitza... Aukera horiez gain udalak eskola kirola egiteko aukera ematen du. Guztira OHOk 480 ikaslek hartzen dute parte eta gehienak, 150 edo, 5. eta 6. mailakoak dira. Begoña Payas eskola kiroleko koordinatzaileak dio OHOk ikasleak, oro har, kirola egiten dutela baina ez direla federatzen. "1. eta 2. mailakoek jokoak egiten dituzte kirolak ezagutu dituzaten; 3.etik 6.era askotariko kirolean sartzen dira. Hauek kirol guztiak egiten dituzte, taldean nabiz bakarka; 7. eta 8. mailakoak, berriz, banakako zein taldekako kirol bat aukeratzen dute...".



Musika Eskolan gazte-gaztetatik instrumentoak ikasten.

Begoñaren esanetan futbola da arrakastarik handiena duena. "Nesketan zazpi lagunek osatzen duten 3 talde daude eta mutikoetan 11ko beste hiru". Kirola gero eta ume gehiagok egiten dute. "Badirudi aurreko urteetan kirola bigarren mailan zegoela eta zereginen artean haurrek beste batzuei garrantzi handiagoa ematen ziete-

la, aurten, ordea, interes handiagoa eman diote". Pol-polek, bestalde, 5.etik 8. mailara artekoentzako mendi irteerak antolatzen ditu.

Partikularrak

Akademietara nahiz partikularrera joaten diren haurrak ere badira. Maite Aranzabalek 15 urte daramatza partikularrak

ematen. "Batez ere mutiak dira niregana etortzen direnak. Badirudi neskak ikasketetan fina-
goak direla. Errazagoa da OHOkoei baino zabarragoei ematea: OHOk asko gurasoek edo tutorek bidalita etortzen dira -ez euren borondatez eta hori nabaritzen da". Maitek ere ordutegiak jar-
tzerakoan beste guztiak duten arazoa du: "haurrek gauza gebiegi dute eta ordutegiak aldatzen ibili behar dugu".

Ingelesa

Partikularretan edo akademitan, zalantzarik gabe, nagusi ingelesa da. Herriko ingeles akademietako batean OHOk 80 bat lagun dabilta. Elena idazkariaren esanetan gehienak 7 edo 8 urte-
rekin hasten dira eta haur kopururik handiena 10-11 urte bitartekoena da. "Bai gurasoek, bai haurrek garrantzi handia ematen diote ingelesari eta eskolan gaizki ibiliz gero beste zeregin batzuk ingelesa baino lehenago lagatzen dituzte".

ARGI IBILI... ETA ERAMAN EZAZU

HILABETEETARAKO UKIPENEZKO LENTEAK EROSTEAN ERAMAN OPARI GISA JAKA HAU ETA LEHENENGO PAREA



Orain, MultiOpticasen, Zerbitzu Optikoetan lehena, 6 hilabeterako Ukipenezko Lenteak eta horiek zaindu eta gordetzeko likidoak erosteagatik, lehen pareta eta jaka olinpiko berezia oparitzen dizkizugu.



MULTIOPTICAS EIBAR

ZERBITZU OPTIKOETAN 1 Zba

Bidebarrieta, 2 • EIBAR

MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA

ZERBITZU OPTIKOETAN 1 Zba

J. Carlos Guerra, 1 • ARRASATE

Ibargaray, 16 • BERGARA

J. M. Barandiaran Enparantza, s/n • ORDIZIA

BEZEROAREN ARRETA ETA ZERBITZURAKO TELEFONOA
900 - 34 35 36

Promozio honek izakinak bukatu arte iraungo du.

Erlojuaren menpe bizi al zara?



Baltasar Prieto

58 urte, jubilatua

Ez, ni guztiz independente bizi naiz. Prejubilauta nago eta ez daukat inolako obligaziorik. Trankil bizi naiz.



Marisabel Oregi

26 urte, langilea

Bai, denbora guztian erlojuari begira nabil. Badakit zein ordutan zer egin behar dudan. Astebukaeran, berriz, guztia ahazten dut.



Julio Martin

33 urte, langilea


Daukadan lanagatik bastante, bai. Ordutegi normala daukat baina horrek nahiko lotzen zaitu. Astebukaera lasaiago ibiltzeko aprobetxatzen dut.



Mertxe Beristain

54 urte, langilea

Guztiz menpe bizi naiz bai. Lan egin behar dut eta horrek ordutegi bat betetzea suposatzen du. Baina gustora nago nagoen bezala.



Imanol Alberdi

67 urte, jubilatua

Ez, ahaztuta daukat hori. Lehen lanean nengoenean bai eta hori lagatzeko desiatzen geunden. Ez daukat inolako ordutegi arazorik, komeni denean jeiki, jan..., etab.



Ane Miren Etxeberria

12 urte, ikaslea

Ez hainbeste, nahiko lasai ibiltzen naiz. Baina bueno, astebukaeretan gehiago, nahi dudana egiten dut eta.



- Fotokopiak koloretan
- Publizitadedun kamisetak
- Oihal inprimaketak

San Lorentzo, 7 behea.
☎ 76 50 39

AKORT

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
 - PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atek, manparak...

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Fabrika: Zigarrola 1, 8. pabiloia ARRASATE
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 41 30

ZUBIETA
elektragintza

**MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK**

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

FERNANDEZ



**Oihal puskarak
Oihalak**

San Antonio, 3 ☎ 76 22 93
Ibargarai, 2 ☎ 76 53 22



Look berria Nafarroan

Urtetan zehar, Pirineotako azeri txuria -Gabriel Urralburu- nafar politikan gailen ibili denean, Nafarroa geure dugula sinesteak ere lana eman digu. Egoera hau irauliz edo, hor etorri zen Juan Cruz Alli, Tasio ikazkinaren lehengusu yuppie txapeldun plantan, Nafarroak euskal sustarrak ere badituela aitortu eta tripako minik izan barik. Lizarrustitik alde honetako euskaldunok -hau dok mutila, hau! eginaz- adurra zerigula Alliri begira geratzen ginen telebistaren aurrean.

Oraindik aspaldi ez dela Javier Otanok Aizpuni erantzuten zion batean esandakoa da -ala Del Burgori erantzuten zion? Inoiz ez dituzue nahastu Del Burgo eta Aizpuri? Ez zaizkizue biak ere elkarren pare samarreko bare eta karakol iruditzen?- bada, bieta-ko bati esandakoa da Iñaki Cabasésen bulegoan bandera konstituzionalak, guztiak ere, zein bere lekuan daudela, eta hortik aurrerako ikurrin-jartzeak bulegariaren gorabehera direla, eta Gubernuburuak -Otanok berak- ez duela ezer egitekorik.


Javier Otano diplomazia xotileko ariketa leunetan!

Nafarroa Oinezeko kontuak ostera, geroagokoak dira oraindio. ETBk ez zigun bada, Otano jauna Tuteran Nafarroa Oinez, lehenago Alli bezala, pasiaran erakutsi? Bai aldatuak Nafarroako aginte-mutilak!

Ez omen dago baina arantzarik gabeko larrosarik. Gasteizen zen gertatu beharrekoa, eta bai gertatu ere. Nafarroa eta Euskadiren arteko harreman berrien estrenukoan, zer egin zioten Otanori? Sufrea bota zioten begietara? Azido sulfuriko edo zikuta tragoren bat edanarazi zioten? Ala antikristoa jaregin ote zuten uste gabean?

Bai zera! Euskara erabiliz erreguren bat egin bide zuen kazetariren batek, eta ai ene, Otano gurea mindu eta erretxindu egin zen! Irudi berri edertua bai, baina burua lehengo lepotik!

Markos BALENTZIAGA



Madrilek 3 Euskal Herriak 2

Aspalditxo igaro ziren lehenengo mailako futbola kiról sano bat zeneko sasoiak. Gaur egun hori baino zertxobait gehiago da. Erromantizismoaren garaiak ere joan ziren arlo honetan eta profesionaltasuna, ikuskizuna, kirola balio positibo bezala, eta sobornoa, tranpa, dopinga e.a. balio negatibo bezala nahastean dituen ekintza bihurtu zaigu.

Gure herrian, beste aldagai bat ere erantsi izan zaio futbolaren kontuari. Gure taldeak nazionaltasunaren ordezkari dira, eta etsai zentralistaren aurka jokatzeko dutenenan, mendekua helburu dutela bialtzen ditugu gure ostikalariek Euskal Herriaren ordezkartzaren jabegoa euren esku uzten dugularik. Okerrera izaten da, politikan bezala buru makur geratzen garela gehienetan ordu t'erdiko sufrimendu eta izerdien ondoren. Antzerako zerbaitek gertatu zitzaigun aurreko larunbatean telebistari begira geunden futbolzale guztioi. Esan dezadan futbola gustatzen zaidan horietakoa naitzela, baina ez ditudala gustoko maila honetan sarriegi egiten ditugun sublimazioak, merezi duen garrantzia eman behar baitzaio dibertigarri batzuetan eta nazkagarri bestetan gertatzen zaigun ikuskizun honi.

Hau guztia kontuan izanik gogoeta txiki bat egin nahi nuke Txamartinen gertatutakoari buruz. Han gertatutakoa Albaceten gertatu izan balitz aste honetan zehar irakurri eta entzun ditugunak ala oso bestelakoak jasoko ote genituzkeen komunikabideetatik? Arbitroa izan al zen R.Madrilek lehenengo gola sartu zuenean besoa jasota norabait begira geratu zen jokalariraino? Nor joan zitzaion zoro baten pare Esnaiderri area barrenean? Inork esan al die ezer jokaldi hauetan hain hankasartze nabarmenak izan zituzten jokalariei? Ondo da hirugarrenek izan dezaketen erruak aztertzea, baina honek ez du ezertarako balio izango gurek ez baditugu argitzen. Albaceteren aurka izan balitz jokalariraino bati baino gehiagori gorrituko zizkieten belarriak aldageletan.

Inazio ARREGI

Angiozar, 37 ☎ 76 27 82



ARGAZKI
Julio Garrido
ERAKUSKETA



NAHIKARI


Taberna
Masterreka, 20 ☎ 76 57 71

MUGICA
GOXOTEGIA



Artekale, 3
☎ 76 10 34


- Pastelak
- Errellenoak
- Tostoiak
- Tartak



Irizar, 2
☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

Atsedeen zentrua
LOKARTU
Koltxoi-denda
Orain SORALUZEN



■ HIESaren ihardunaldiak

Egunotan HIESari buruzko sensibilizazio ihardunaldiak izan dira Kultur Etxean. **HIES Ekimena** taldeak antolatuta, "Como una antorcha" erakusketa, diapositiba eta bideo emanaldiak edota hitzaldiak izan dira eta herritar eta ikasle dexente hurbildu dira Kultur Etxera. "Como una antorcha" erakusketan seropositiboak diren pertsonen testimonioak jasotzen dira kalean, ospitalean, kartzeletan etab.etan. Bertan pertsona hauek beren bizitzen berplanteamendua egin behar izan dutela adierazten dute kasu gehienetan. Asteazkenean, berriz, **Eneko Landaburu**

mediku hijienistaren eskutik "Cuestionando el virus del SIDA" eztabaida irekia izan zen. **Txapa Irratiak** ere ihardunaldietan kolaboratu du. Atzo bideo-hitzaldi bat izan zen Pol-Polen, gauean HIESari buruzko saioa berezi bat emititu zuten eta gaur arratsaldean, berriz, kalejira bat egitekoa zen arratsaldeko 8etan.

■ Hori umorea!

Izaro Aperribai, Joseba Larrañaga eta **Aitor Muruamendiaraz** bergarar gazteak ETBk Miramonen dituen estudioetan izan ziren asteartean "Txiskola" programaren beste saio bat grabatzen. Lehen kanporaketa gainditu ondoren, oraingoan Billabonako talde bati aurre egin behar izan zioten. Oraingoan proba berriak egin behar izan zituzten eta hori dela eta Bergaran irudi batzuk grabatu zizkieten gure umoristei orain pare bat aste. Billabona eta Bergararen arteko norgehiagoka nola amaitu zen jakin nahi dutenak azaroaren 20an telebista aurrean jarri beharko dira...



Joseba, Muru eta Izaro, Txiskola freskue dastatzeko prest. Argazkian, ETBkoekin batera.



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

zumelaga

JATETXEA

EZKONTZAK, DESPEDIDAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, MENU BEREZIAK...

etorri eta galdetu!!

ARREGI

Eraikuntza materialeak

Billurgia Tellerian, Labegaraletan.
Tfnoa: 76 27 93



■ **Peña Limako**

Peña Limakoko lagunek bazkaria egin zuten larunbatean **Artatse** elkartearen. 25 lagun bildu ziren urtero egiten duten bazkari honetan eta, aurreko urteetan bezala, umore ona eta elkarren arteko txantxak izan ziren nagusi. Ondo bazkaldu eta bazkalostean luze berba egin ondoren, herriko tabernak okupatu zituzten. Parrandak goizaldera arte iraun zuen, nahiz eta batek baino gehiagok tropelaren arrastoa galdu...

■ **Ipuin kontalaria**

Peio Añorga ipuin kontalaria Kultur Etxeko liburutegian izan dugu egunotan, OHOKo 2. mailako ikasleei istorioak kontatzen. Guztira, 260 haur inguru pasa dira emanaldi ezberdinetan eta guztiek primeran pasa dute, Añorgak benetan bizia ematen baitie bere ipuinei. Peio Añorga Angiozar eta Osintxun ere izan zen eta bertako haurrak ere liluraturik utzi zituen. Ahozko literaturak ez du sekula bere majia galduko...



Zertan dihardute ba?



Mari Paz Alustiza

bergararrak Antzuolako Aire Libreko I. Margo Lehiaketa irabazi zuen. Guztira, 34 margolarik hartu zuten parte Antzuolako lehiaketan. Antolatzaileek "Antzuolako herri barrua" gaia agindu zieten guztiei. Mari Pazek 80.000 pta.ko saria irabazi zuen etxe zahar batzuk eta atzean eliza agertzen diren kuadro bati esker. Bere atzetik Raimundo Argos bilbotarra (65.000 pta.) eta Jokin Telleria beasaindarra (50.000) sailkatu ziren. Lehiaketara ez zen Antzuolako margolaririk aurkeztu eta epaimahaiak 35.000 pta.ko akzesita Eugene Hervás getxotarrari ematea erabaki zuen. Mari Pazek azaldu digunez, *"denbora gutxi izan arren, gogoz hartzen dut parte honelako lehiaketetan"*.

iRUDI
Erlojudenda
Bitxitegia
 Ibargarai, 2
 ☎ 76 51 65

ETXEBERRIA
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA
 Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

Lupe García

37 urte ditu eta azken 15 urteotan estetika lanetan. Gehien gustatzen zaiona aurpegiko edozein tratamendu egitea eta depilatzea da. Lilura edertze aretoan egiten du lan.

- Itxura ala izaera?
- Izaera dudarik gabe.
- Itxurari garrantzi handiegia ez al zaio ematen?
- Denek ez diote garrantzi bera ematen.
- Depilazio elektrikoa ala argizari bidez eginikoa?
- Elektrikoa betirako da eta gorputz osoan egin daiteke.
- Zirugia estetikoa egingo zenuke?
- Konplejo iturri baldin bada bai.
- Azal polita edukitzeko sekretua?
- Elikadura, egunero zaintzea, edertze etxe batera joatea eta norbere buruarekin gustora sentitzea.
- Zimurra polita dela dio disenatzaile ezagun batek.
- Hala da, gauza asko esan nahi ditu, baina gutxitu badaiteke hobe.
- Gorputz atal bat?
- Eskuak, gauza asko transmititu



"17 zenbakia gustoko dut oroitzapen onak dakarzkidalako, pazientzia handia dudala esaten didate eta oso gozozalea naiz. Arbolapean liburu bat irakurtzea ikaragarria da eta liburu bat amaginarrebari eskeiniko nioke"

- eta asko senti dezakete.
- Perfumea ala kolonia?
- Kolonia, perfumeek molestatu egiten didate.
- Bizikletaz ibiltzea baino nahiago duzu...
- Arbolapean liburu bat irakurtzea.
- Nori eskeiniko zenioke liburu bat?
- Amaginarrebari, asko maite dut.
- Zein filmetako protagonista izango zinateke?
- Pelikulak eserita ikustea gustatzen zait, soinu ona eta pantaila handia dutela.
- Zerk ematen dizu barregura?
- Jende txispadunak...
- Postre bat?
- Bizkotxo txokolatearekin.
- Zapata baxuak ala takoidunak?
- Momentuaren arabera, baina baxuak.
- Disfraz bat?
- Bapatean ateratzen dena.
- Norekin dantzatuko zenuke?
- Eramaten nauen batekin.
- Trena ala itsasontzia?
- Trena, natura ikusteko, urak beldurra ematen dit.
- Zenbaki bat?
- 17, oso oroitzapen onak dakarzkiz.
- Bertute bat?
- Pazientzia
- Astia duzunean zer?
- Liburuak irakurri eta musika entzun, batez ere baladak.



Bizkaia Etorbidea, 1
etxabea



Tfnoa: 77 14 24

**Gurean erosi ezker
aberats egin zaitzake!!**

Cristina

Espaloia, 6

☎ 76 20 70

**Bertan aurkituko
dituzu zure gustoko
LEVI'Sak**

ETXEBIZITZA

122 m²ko **pisua** salgai. Lorategiarekin (286 m²).
☎ 76 33 85/15 76 (gauzez).

Aranerrekan **pisua** salgai.
☎ 76 00 39/79 27 68.

Garajea (2 plaza) alokatzen da Torrekuan. ☎ 76 30 32.

Garaje bat alokatuko nuke Burdiñatan. ☎ 76 18 52.

Bi gelatako pisua alokatuko nuke. ☎ 76 21 43 (Igone).

Etxea salgai Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

Garajea alokatuko nuke Santa Marinan. ☎ 76 37 69.

Garajea salgai prezio onean. ☎ 76 03 70.

Pisu edo ganbara bat alokatuko nuke. ☎ 76 47 85.

Lokala alokatuko nuke Koldo Eleizalden. ☎ 76 37 69.

Etxea salgai Osintxun. ☎ 76 28 70.

Pisua salgai Koldo Eleizalde 18n. ☎ 76 31 57.

Garajea alokatzen da Mas-terrekan. ☎ 76 45 10.

Pisua salgai Joan XXIII plazan. ☎ 76 27 80.

Pisu eguzkitsua salgai Maduran. ☎ 76 27 96.

DENETARIK

Aintzinako komedore bat erosiko nuke. ☎ 76 12 86.

Urrezko pultsera bat galdu dut San Antonio inguruan. ☎ 76 24 72.

Eski denboraldian Jacan pisua osatzeko jendea behar da. ☎ 76 14 59 (Iulen).

Honda CBR 600 motorra salgai. ☎ 76 25 50.

Mendiko bizikleta salgai. ☎ 76 15 76 (Xabi).

Bi motozikleta (GAC Kanowey) salgai. ☎ 78 70 98 (Arantza).

Bultaco cross motorra, Axo trajea, botak eta kas-koa salgai. 60.000 peze-
ta. ☎ 76 31 40 (Miguel).

Motozerra elektrikoa salgai. ☎ 76 29 95.

Sukalde berri berria saltzen dut. Prezio intesgarria.
☎ 76 21 55 (eguerdian).

Flauta trabesera egoera onean salgai. ☎ 76 35 56.

Organo txiki bat erosiko nuke. ☎ 76 24 54.

Tosai kerosenozko estufa salgai. ☎ 76 07 61.

Urrezko kolgante bat (egiptiar jeroglifikoa) galdu dut. ☎ 76 18 27.

Dibujo mahaia, taburetea, akuarela ekipoa eta pintzelak saltzen ditut. ☎ 76 36 22.

LANA

Aleman klaseak ematen dira. ☎ 76 12 77 (Maite).

OHOko klaseak ematen dira. ☎ 76 11 89 (Enmanuel).

Matematika, fisika eta kimikako klaseak. ☎ 76 44 34.

Aleman diplomatuak klaseak emango lituzke. ☎ 76 04 93 (Idoia).

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Etxeko lanak egin edo haurrak zaintzen ditut. ☎ 79 93 17.

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Gutxitu psikikoer hezitzaile batek gutxituak, zaharrak edo haurrak zaintzeko lituzke. ☎ 76 52 08.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89 (Rosario).

Esperientziadun neska batek etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko lituzke. ☎ 76 08 82 (Isabel).

Ingeles Filolojia duen neska batek lan egingo luke. ☎ 76 40 63 (Manoli).

Matematika eta zientziatako klaseak. ☎ 76 31 31 (Juanma)/ 76 45 80 (Andoni). Barrenkalea 13, 3.a.

Esperientziadun pelukera bat behar da. ☎ 76 56 69.

Etxeak garbitu edo haurrak zaintzen ditut. ☎ 76 10 00.

Taberna bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 07 74.

Matematika, zientziak eta diedriko klaseak (UBIra arte). ☎ 76 24 31 (Eneko).

MANIFESTAZIOA
Bergarako UNEDen alde**Azaroaren 11n,**
eguerdiko 12etan,
San Martin plazan

Bergarako UNEDen etorkizuna eta esistentzia bera ere arrisku larrian daudela ikusita, eta honek herriari, eskualdeari eta Euskal Herri osoari nolako kaltea ekarri dion jakinda, azpian sinatzen dugunok zera eskatzen diogu ikastetxe hau zuzentzen duen Patronatuari:

1. Itxi berri duten Euskal Kultura Departamendua berehala zabaltzea eta bere ohizko ikastaroak normaltasunez jarraitzea.
2. Patronatuaren eta langileen artean negoziaketak zabaltzea hau lortzeko: ikastetxe honek sorreratik izan zuen espirituari jarraituz eta komenigarriak ikusten diren aldaketak eginez, UNED bizi eta indartsu bat lortzea, klasez ondo hornitutako karrera akademikoekin, hain arrakastatsuak gertatzen diren ikastaro eta ekintza bereziekin, ikerketa proiektuekin, argitalpenekin, etab.

UNEDen aldeko Herri Ekimena / Langileen Asanblada

BONOFOTOA



M. A. ELKORBEREZIBAR



María Fernández

María Fernándezek jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galdera berak asmatu baitu. Argazkian agertzen zen zurlanduz egindako atetzar ikusgarria XVI. mendeko zein etxetan dagoen galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Arostegi etxea** zen. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **María Fernández**ei eman dizkiogu. Zorionak!!

Zein da baserri honen izena?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara



1. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. ERROTAGAIN	10	4	15	8
2. MADURA INDUSTRIAS GOL	9	4	17	5
3. BERGATRANS	9	4	13	9
4. OGIZUN	9	3	12	7
5. KABIA	7	4	8	6
6. MONGATXURRA	6	4	18	7
7. BAR CANALEJAS	6	4	9	7
8. ARLOTEAK	4	3	3	4
9. ORTZI	4	4	7	10
10. OZETA	3	4	7	12
11. BILDURBAREK OPEL/LAM	0	4	9	16
12. UFALA	0	4	4	24

2. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. OH ZEREZOS	10	4	44	11
2. PAGOMENDI	10	4	20	8
3. AUBEREZI	9	4	22	9
4. A ZE FLAXA	9	4	13	19
5. ETXAGI	7	4	29	17
6. UVE BIKOITZA	6	4	13	15
7. KAYAK OS JARDINEIROS	5	4	19	15
8. HARTU ZAMAK	5	4	7	8
9. NAHIKARI HOOLIGANS	4	4	15	18
10. INDAR GORRI	2	4	3	5
11. ERI	0	4	11	22
12. HALTZARI	0	4	7	25

3. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. NEKROFIKOS	9	4	16	12
2. CONSTRUCC. BERGARA	8	5	22	14
3. AMOZKIBAR	7	4	12	6
4. MOSKIS	7	3	12	6
5. KIROLZALEAK	7	5	12	10
6. LA JUVE	6	4	18	16
7. ARI ARI	6	4	27	22
8. SHAKTALE	6	5	14	16
9. SOROPOTROAK	6	4	27	23
10. EZINLEIKE	5	5	16	13
11. EH BITERRAK	4	5	7	29
12. IGANDEKOAK	0	2	10	12

4. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. FAC	12	4	21	9
2. GUADALEST	9	4	16	11
3. TXIPIRON	7	4	16	11
4. PATXARAN TEAM	7	4	18	11
5. PJS	6	3	14	5
6. PATA NEGRA	4	4	11	19
7. MATXAKATEGI	4	4	17	21
8. OSINTXU	3	3	9	16
9. LABEGARAIETA	3	3	7	9
10. ALDOKA MALDOKA	3	3	21	13
11. XURRUPAK	0	4	10	31

TALDEAK



Ufala taldea Jabi Ibarra, Joseba Otaño, Alex Azkarate, Carlos Márquez, Xabier Alberdi, Aitor Rementeria, Jesus Mari Reparaz, Ion Aiastui, Paul Sanz, Iñaki Legazpia, Carlos Orbea, Alex Gardoki, Jesus Martínez eta Igor Legazpiak osatzen dute. Ufala izenarekin 3. urtea da aurtengoa, lehen Etxenagusia izenarekin jokatzen baitzuten. Taldearen oinarria lagun kuadrilak osatzen du eta iazko talde berbera du. Aurtengo denboraldia ez dute batere ondo hasi, baina duten jokalariekin, gogoratu iaz kopako txapelketan 2. gelditu zirela, gauza hobek egin ditzakete.

PARTIDUAK

LARUNBATA BARRUAN

09:00: Labegaraieta-Aldoka Maldoka • Bildurb.
10:00: Bildurbarek OPEL/LAM-Ufala • Aldoka
11:00: Ogizun-Bergatrans • Ufala

IGANDEA BARRUAN

09:00: OH Zerezos-A Ze Flaxa • Autoberezi
10:00: Autoberezi-Uve Bikoitza • OH Zerezos
11:00: Arlotek-Ortzi • Uve Bikoitza
16:00: Mongatxurra-Kabia • Madura Ind. Gol
17:00: Madura Ind. Gol-Bar Canalejas • Kabia
18:00: Ozaeta-Errotagain • Bar Canalejas
19:00: Hartu Zamak-Pagomendi • Ozaeta
20:00: Eri-Etxagi • Hartu Zamak

IGANDEA KANPOAN

09:00: Soropotroak-Nekrofilikos • Kirolzaleak
10:00: Kirolzaleak-La Juve • Soropotroak
11:00: Amozkibar-Iganekoak • La Juve
16:00: PJS-Osintxu • Patxaran Team
17:00: Pata Negra-Patxaran Team • Guadalest
18:00: Matxakategi-Guadalest • Pata Negra

ANTOLAKETA BATZORDEAREN OHARRA

Antolaketa Batzordeak jakinarazi digu, txapelketan diharduen talde bakoitzak 8.000 pza. ordaindu beharko dituela abenduaren 16a baino lehen.

EMAITZAK

1. MAILA

ARLOTEAK-OZAETA 2-0
BAR CANALEJAS-BERGATRANS 2-2
UFALA-ERROTAGAIN..... 1-4
OGIZUN-MONGATXURRA 5-4
MADURA IND. GOL-BILDURBAREK OPEL/LAM 5-3
KABIA-ORTZI 2-2

2. MAILA

OH ZEREZOS-ERI 10-2
PAGOMENDI-UVE BIKOITZA 7-2
INDAR GORRI-HARTU ZAMAK 1-1
NAHIKARI HOOLIGANS-A ZE FLAXA 2-3

3. MAILA

ARI ARI-SOROPOTROAK 18-0
KIROLZALEAK-SHAKTALE 6-5
EH BITERRAK-LA JUVE 3-2
CONSTRUCCIONES BERGARA-MOSKIS 2-2
EZINLEIKE-NEKROFIKOS 4-5

4. MAILA

PJS-ALDOKA MALDOKA 6-1
LABEGARAIETA-PATA NEGRA 6-2
TXIPIRON-PATXARAN TEAM 2-2
MATXAKATEGI-XURRUPAK 7-5
GUADALEST-FAC 2-4

TALDEAK



Errotagain taldea David Ramiro, Xabier Albisua, Isidoro Blanco, Ivan Iturrikastillo, Jose Mari Romero, Juan Carlos Romero, Pedro Zafra, Aitor Anton eta Carlos Gómezek osatzen dute. Duela 3 urte ligako txapelketa irabazi zuten. Halere joan zen urtean ez zuten emaitza onik lortu eta aurtengo denboraldirako "dena" irabazi nahi dutela adierazi digute. Aurtun jokalar berri bat ekarri dute eta esan digutenez ez daude ados izan dituzten arbitraiekin. "Epaileek puteatu egiten digute eta gero esaten dute, gu bronka bila aritzen garela". Hauek Gil y Gil baino negartigoak omen dira...

Behobia-Donostia: 100 bergarar inguru igandean irteera puntuan

Igandean jokatu den Behobia-Donostia korrika proba 118 lasterkari inguru joango dira Bergara eta Antzuolatik. Xan Martin kirolak eta Bolintxo kirolak dendetan eman diguten datuen arabera 96 bergararrek (4 emakumezko) eta 18 antzuolarrek hartuko dute parte aurtengo Behobia-Donostian.

Antolatzaileek adierazi dutenez, igandean 8.000 korrikalari baino gehiago izango dira Behobiako irteeran. Proba korritu behar dutenek kontu handia izan behar dute kotxea edo autobusa lagatzeko orduan, aurtan aparkalekuak al-



Jai giroa nagusi izango da igandean Behobia-Donostia lasterketa herrikoian. Garrantzitsuena parte hartzea dela esan ohi da eta lelo horri jarraituz ehundik gora bergarar izango dira igandean Behobiako irteeran.

datu egin baitituzte eta antolatzaileek garraio publikoak erabiltzea gomendatzen dute. Irteera puntura txandala jantzita

joan daiteke eta gero arropak, poltsa batean sartuta, antolatzaileek eramango dute helmugara. Amaitzeko, esan deza-

gun, Zaleak atletismo taldeak antolatu duen autobusa goizeko 8.30etan Frontoi aurretik irtengo dela. ■



Mendizaletasunak gora haurren artean

Pasa den igandean Pol-Polek egindako mendi irteeran 300 haur inguru (5 autobus) joan ziren Tolosaldean dagoen Uzturre mendira. Pol-Polek antolatzen dituen mendi irteerara OHoko 6., 7. eta 8. mailako haurrak joaten dira eta igande goizetan Euskalerriko mendiak ezagutzeko aukeraz gain, naturaz gozatzeko aukera izaten dute. Bestalde,

Alpino Gorlak eta Pol-Polek azaroaren 26rako nagusiendako mendi irteera antolatu du. Irteera egun guztirako da eta Luyando eta Orozko inguruak ezagutzeko aukera dago. Azkenik, eski denboraldirako urteko bonoak ateratzeko epea zabaldu dute eta bonoak ateratzeko beharrezkoa da bi argazki eta nortasun agiriaren fotokopia aurkeztea.

Gero eta gehiago dira Pol-Pol Mendizale Taldeak antolatutako mendi irteeretara joaten diren haurrak. Argazkian, eskoletako haurrak Aloña Mendin.

Martin Egañak ia eskuan du AX GTI txapelketa

Joan zen igandean Jaraman jokatutako proban Martin Egaña kotxe gidari bergararrak beste garaipen bat lortu zuen AX GTI txapelketaren barruan. Gauzak horrela, abenduaren 3an Xerezen jokatuko den lasterketan 2 puntu lortzen baditu txapela jantzi-ko du. Egañak bere laugarren garaipena lortu zuen igandean, izan ere Montmelo, Albacete eta Calafaten podiumaren goiko mailara igotzea lortu baitu aurtan. BERRIGARARI adierazi dion bezala, datorren urtean Super Copa ZX mailan korritzeko asmoa du, baina horretarako babesleen laguntza derrigorrezkoa du. Bestalde, Pablo Irizarrek, Super Copa ZX probaren barruan, ezin izan zuen lasterketa amaitu, beste kotxe batek jondoren lasterketa utzi egin beharra izan zuen eta. Irizarrek bere mailako txapelketa irabazteko aukera guztiak galdu ditu.

Aritz Berraondo

Etorkizun haundiko pilotaria

FUTBOL PARTIDUAK

- ◆ **Bergara-Urola**
Erregionala.
Igandea, 15.45. Ipintza.
- ◆ **Bergara-Urki A**
2. mailako jubenilak.
Igandea, 11.00. Ipintza.
- ◆ **Bergara-Ilintxa B**
2. mailako kadeteak.
Larunbata, 15.30. Ipintza.
- ◆ **Bergara-Almen**
Emakumezkoak.
Larunbata, 17.00. Ipintza.

ESKUBALOI PARTIDUAK

- ◆ **Bergara-Arrate**
Kadete neskak.
Larunbata, 16.00.
- ◆ **Bergara-Arrate**
Jubenil neskak.
Larunbata, 17.15.
- ◆ **Bergara-Ei Pilar**
Senior mutilak
(2. nazionala).
Larunbata, 18.30.
- ◆ **Bergara-Don Bosco**
Kadete mutilak.
Larunbata, 20.00.
- ◆ **Ibili Bergara-Allerru**
Senior mutilak (territoriala).
Larunbata, 12.15.
Partidu guztiak Labegaraieta
kiroldegian jokatuko dira.

SASKIBALOI PARTIDUAK

- ◆ **Bergara-Maryward**
Junior neskak.
Igandea, 12.15.
Labegaraieta kiroldegia.

IGERI TXAPELKETA

Larunbatean Tolosan jokatuko den Euskadiko igeri txapelketan Eneritz Muguruza, Eider Balzategi, Amaia Lazpiur eta Agurtzane Crespo Bergara Igeri Elkarteko igerilariek hartuko dute parte fondo eta estiloetan.

Aritz Berraondo pilotari antzuolarra Iruñean jokatu den Iruñeko Munduko Txapelketan izan da eta hurrengo azaroaren 26an ETB eta DVK antolatzen duten txapelketan ia irabazita-ko txapela defenditzera irtengo da Zearra bizkaitarrarekin batera.

- Zer moduz Iruñeko Munduko Pilota Txapelketan?

- Mano-manoan jokatu nuen eta ordezko lanak betetzen aritu nintzen. Baina selekzionatzaileak bi partidu jokatze-ko aukera eman zidan eta Frantzia eta Mexikoren aurka jokatu nituen partiduak irabazi egin nituen. Astebete Iruñean izan nintzen kontzentratu-rik, ondo pasatu genuen, baina politagoa izango zen beste toki urrunago batean jokatzea. Halere, esperientzia polita izan zen.

- Mundiala pasa da eta ze asmo dituzu?

- Hainbat txapelketa jokatzen aritu naiz eta DV Txapelketa hasten da eta hori da orain helburu garrantzitsuena. Iaz txapela atera genuen, baina aurren oso bikote indartsuak daude. Halere aha-leginak egingo ditugu irabazteko, ea zorte pixka bat daukagun.

- Txapela irabazteko zeintzuk dira zure faboritoak?

- Iaz finalera heldu ziren Urretabizkaia anaiak ez dituzte banandu eta beti batera jokatzen dute-nez, hauek dira nire us-

tez faborito nagusiak.

**- 19 urte dituzu, profesio-
nalaletara igotzeko eskaintzarik izan duzu?**

- Ez, ezer ere ez. Orain afizionatuetan jente mor-do bat dago eta ezinez-koa da debutatzea. Gai-nera profesionalak izan-dakoek guk baino maila hobea dute eta oso zaila da.

- Beraz zeuek ere hobetu beharko duzue, ez?

- Noski, jaitsitakoek egurra ematen digute eta orain berriz behean gau-de. Halere gure maila ho-betzeko eta ikasteko on-


do etorriko da. Baina partiduak irabazteko...

- Bestela, ikasten ari zara edo zer egiten duzu?

- Elementala bukatu dut eta nire kontura ari naiz gertatzen. Baina denbora libre-a dudanez gimnasio batera edo prestatzaile batekin has-teko asmoa dut.

- Noizbait profesio-nala izateko esperan-tzarik?

- Pentsatu pentsatzen duzu, baina derrigorrez punta-puntan ibili behar da. Bestela ezin da pilo-tatik bizi.



"Gimnasio batean edo prestatzaile batekin hasteko asmoa dut"

"Afizionatuetan pilotari asko gabiltza eta profesioaletan debutatzea zaila da"



Eskola publikoan

Horiek mutikoteak! Goiko argazkia 1975 urte inguruan ateratakoa eta bertan agertzen diren ikasleak 7. edo 8. mailan ibiliko ziren orduan. Orain hiru asteko erretratu zaharra bezalaxe, argazkia Eskola Publikoko gimnasioan ateratakoa da. Astebukaeran barre ugari egingo dute garai haiek-gogoratuz. Horra hor beraien izenak, ezkerretik eskumara.

Goiko ilaran: Javi Arenaza, Elias Delgado, Iñaki Osa, Iosu Ibabe, Jesus Agirre, Iñaki Eguren, Marauri, Jose Mari Esnaola, Jesus Mari Manzano eta Ignacio Javier Aizpurua "Zipo".

2. ilaran: Iñigo Korkostegi, Bigen Muruamendiaraz, Javi Unzueta, Unzetabarrenetxea, Juan Antonio Migura, Alberto Aranzabal, Venancio del Buey, Jose Antonio Iñarra, Jose Antonio Arriola, Miguel Angel Díaz eta Ignacio Gallastegi.

Jarrita: Jose Antonio Azkarate-Askasua, Iosu Zabaleta, Sergio González, Jose Luis Loidi "Rossli", Jose Antonio Azeitia, Andoni Romarate zabala, Ina Aristi, Jabier Iñurrategi, ezezaguna, Jose Antonio Aiausti, Menor eta Alfredo González.

Aurreko ilaran: Juan Mari Retes, Luarizaristi, Iñaki Zangitu, Francisco Javier Roige, Jesus Mari Marzo, Igartua, Zabaleta, Fernando Jauregi, Ion Larrañaga eta Valentin Moñux.



Gotzon Mendibil Kortazar "Gotxi"

*Muxu bat emon zostazun,
barre bat ein zostazun
besarkatu ninduzun...
Mila muxu, mila barre,
mila besarkada...
eta malko bat zuretako.*

KUADRILAKO LAGUNAK





GOGORATU!! ORDAINKETA ERRAZTASUNAK ETA %50 ARTEKO BEHERAPENAK ISTRIPUAK EZ IZATEAGATIK

Inoiz ez du aseguru etxe batek halako aukera zabalik eskaini. MAPFRE MUTUALIDAD-i esker, hemendik aurrera izango duzu zer aukeratu. Edozein direla ere zure beharrak eta nahiak, zure autoarentzako neurriko aseguruak aurkituko duzu beti. Halá seguru izan zaitez. Seguru eta babestuta. Zure atzean auto-asegurutan buru den etxea izango duzulako.




**MAPFRE
MUTUALIDAD**

Simon Arrieta, 3 BERGARA
☎ 76 28 79 / 76 18 80

ALZAS ELEKTRAGINTZA

**Korronte alferno eta
zuzeneko makina
elektrikoen eta
abiada haundiko
induzituen
konponketa eta
bobinaketa**



Antigua auzoa, 3 ☎ (943) 76 64 14 Faxa: (943) 76 62 99 20577 ANTZUOLA

LongLife[®]
Larga vida

**Kalitate goreneko
larrurik naturalena.**



5 urteko garantiaz

Eta LongLife modelo
baten erosketagatik larrua
garbitzeko eta
mantentzeko produktu
aukera osoa jasoko duzu!



grupo



**Amuebladora
Mondragonesa**

a. eme. interiores, Garibai, 9 ARRASATE ■ Tfnoa: 79 15 03

centro hogar muebles, Zigarrola, 1 ARRASATE ■ Tfnoa: 77 14 92